

# KUIRTASUNAK

DIBERTSITATEA EZAGUTZEKO, SORTZEKO  
ETA PARTEKATZEKO ISTORIOAK, KOMIKIAN

Komiki hau era askotara irakur daiteke.

## Norentzat?

Komiki hau interesgarria izan daiteke komiki-irakurleentzat, ilustratzen dutenentzat, kuir kolektiboarentzat, nerabeentzat, irakasleentzat, liburutegientzat, familientzat, talde informalentzat, baita bitartekotza pedagogikorako tresna modura erabili nahi dutenentzat ere.

## Zer gerta daiteke

Bakarka irakur daiteke, plazer hutsagatik, beste edozein komiki bezala. Segidan irakur daiteke, edo tarteka; amaieratik hasi, edo jauzika irakurri. Beste batzuekin parteka daiteke eta ustekabeko elkarrizketak ekar ditzake. Abiapuntu bat ere izan daiteke istorio berriak sortzeko, pertsonaiak irudikatzeko edo nortasunez, afektuez eta bizitzeko moduez hitz egiteko.

Komikiarekin batera datorren testu hau erreminta-kutxa bat da: oso testuinguru ezberdinetara egokitu daitezkeen ideiak, iradokizunak eta esperientziak ditu. Ez dago zertan dena erabili, hurrenkera bati jarraitu edo ondorio jakinetara heldu.

Komiki hau irakurri eta partekatzean, batzuetan honelakoak gertatzen dira:

- ↑ nortasunari, desirari, afektuei edo parte izateari buruzko galderak agertzen dira
- ↑ norbere edo besteen esperientziak ezagutzen dira
- ↑ gogoa pizten da beste istorio batzuk kontatzeko, marrazteko
- ↑ espero ez ziren elkarrizketak sortzen dira
- ↑ irudimena eta sormena abian jartzen dira

Ez da beharrezkoa hori guztia gertatzea, ezta beti gertatzea ere. Talde, pertsona eta une bakoitzak bere bidea egingo du. Ez dago nahitaezko urratsik, ez eta denbora finkaturik ere.

## Komikia erabiltzeko modu batzuk:

### Irakurri eta solastatu

Komikia irakurtzea eta iritziak partekatzea: zein eszenak harritu zaituzten, zein pertsonaiak sortzen duten jakin-mina, zein emozio agertzen diren. Ez dago zertan ezer interpretatu edo «azaldu», aski da datorrena entzutea.

### Begiratu irudiak

Bineta edo eszena bat aukeratzea eta nor bere buruari galdetzea: Zer ari da gertatzen? Zer gertatu zen lehen? Zer gerta liteke gero? Irudiak era askotara irakur daitezke, eta ez dago erantzun zuzenik.

### Komikitik abiatuta sortzea

Eszena berriak asmatzea, istorio bat jarraitzea, pertsonaia baten ikuspuntua aldatzea edo berri bat sortzea. Marraztuz, idatziz edo, bestela, istorioa ahoz gora kontatuz egin daiteke.

### Askotariko testuinguruetan partekatzea

Komikiak lagunen, ikasleen eta senideen artean funtziona dezake. Ikasgela batean, liburutegi batean, liburu-denda batean eta taller batean ere bai. Proposamenen iraupena, sakontasuna eta formatua taldearen testuinguruaren eta gogoaren arabera egokitu daitezke.

### Bitartekaritza-tailerra

Beste formatu bat ere gara daiteke, komikia taldeko taller baten bitartez lantzeko, irakurketa, elkarrizketa eta sormena uztartuz, bitartekaritza eta guzti. Saioa hasteko, liburuaren sarriera txiki bat egin daiteke, eta partaideak aurkezteko dinamika erraz bat, konfiantza-giroa sortze aldera. Jarraian, taldeak egin daitezke, ausaz, “bat eta bi” edo antzeko dinamikaren baten bitartez, ustekabeko aliantzak sortzea sustatzeko.

Talde txikitik, komikiko zenbait eszena esplora daitezke, haientzako izenburuak asmatu, eta istorio bakoitzean zer gertatzen den irudikatu. Interpretazio horiek idatziz eta labur-labur jaso daitezke. Hortik aurrera, pertsonaiak eta pizten dituzten askotariko begiradak jorra daitezke, eta, gero, sorkuntza-proposamen bat egin, talde bakoitzak 4-6 binetako istorio txiki bat asma dezan, jatorrizko istorioak jarraitzen edo nahasten dituenak. Tailerra amaitzeko, sortutakoa parteka daiteke eta azken elkarrizketa bat sor daiteke bizitakoaz, topatutakoaz eta sortu diren galdez jar duteko; egindako lanak argitalpen bateratu batean biltzeko aukera zabalik utziko da (horma-irudi bat, koadernotxo bat edo PDF bat); eta saioa balorazio partekatu bat eginez buka daiteke. Adibide bat besterik ez da, dena den, testuinguruaren arabera egokitu, laburtu edo moldatu daitekeena.

**KUIRTASUNAK** egunerokoa berriz pentsatzera gonbidatzen gaitu, begirada disidente eta afektibo batetik. Maialen, Nora, Selene, Marti eta Ursuk emango diote bizia Kuirtopiari, aterpe bihurtutako liburudenda txikiari. Bertan, zaintza, erresistentzia eta desio sare bat ehunduko dute.

Hainbat gai jorratzen ditu argitalpen honek: polimaitasuna, harreman afektibo-sexualak, transexualitatea, erresistentzia bisexuala, antiarrazakeria, adinkeria, lan sexuala eta patriarkatuaren eragina gure gorputz eta portaeretan.

Askatasun eta pentsamendu kritikorako gune gisa, auzoetako liburu-denden biblioaniztasuna eta boterea ospatzen duen obra da.



Se puede acceder a una unidad didáctica completa:



BORROKALARIAK GARA!

